

ETXAGOIK ANA BEGIRA

2012KO UZTAILA - 161 ZKIA.

eguraldi onarekin
kalean ibiltzea
nahiago dugulako ...



... egitaraua pasiatzera
aterako dugu
aurtengo udan ere



gazte
INFORMAZIO PUNTUA

Onatiko Gaztelekua - Foruen enparantza 4
943 718 257 - gazteinformazioa@oinati.net

OPORRETARAKO GIDA-LIBURUAK

Oporrak hemen dira, eta asko eta asko dagoeneko zuen bidaietarako plangintzak egiten hasiak izango zarete. Jakizue, bada, Gazte Informazio Puntuan badituzuela zuen eskura hainbat gida-liburu, atzerrikoak zein bertakoak, lagapenean hartu ahal izango dituzuenak. Gainera, nobedade batzu ere baditugu gida-liburuen zerrendan:

Escalada en Navarra

Escalada en el pirineo

Refugios del Pirineo

Aristas y crestas de Euskal Herria

Treking de los parques nacionales de los pirineos

Guia de Camping 2012

La gran travesia por Euskal Herria

Alta ruta del pirineo Vasco

La vuelta al pirineo Vasco

Gran travesia de los Pirineos en bici

Zerrendako horiek, esan bezala, nobedadeak dituzue gure bidaiia-liburutegian, baina beste hainbat ere aurkituko dituzue bertan.

KONTZERTUA GAZTELEKUAN

ANTON REQUERD

+

EL TRIO CALAVERA

+

RUBEN HILKETA

Uztailak 7, zapatua, arratsaldeko 5etan
Sarrera: 2 €

FRONTENIS TXA

Oñatiko Udaleko Gazteria Zer



PELKETA

bitzuaren eskutik



Uztailak 6, ostirala, 18:00etatik aurrera, Topalekuko Txapelketa

Uztailak 7, zapatua, 17:00etatik aurrera, Kuboko Txapelketa

Izen-emate epeak zabalik txapelketak hasi arte



GAZTELEKUA HERRIJORRAN

Gaztelekuko prozesu parte-hartzaileko 4. deialdi irekia

Gaztelekuaren kudeaketaren inguruan zabaldu zen Gaztelekua herrijorran prozesua, eta dagoeneko 4. bilera ospatzera goaz... Beti bezala, deia zabaltzen dizuegu herriko gazte eta ez hain gazte guztiei, oso garrantzitsua baita Oñatiko gizarteko sektore guztiak ordezkatuak izatea. Anima zaitezte uztailaren 18an ere parte hartzera!

Uztailak 18, asteazkena
arratsaldeko 7etan Gaztelekuan

TOPALEKUKO EGITARAUA



Uztaileko egitarauaz ari garenez, aurten ere ezin zitzai-
gun falta dagoeneko udako klasiko bat bilakatu zaiguna:
Hondartzara irteera. Aurten Zarautzera joango gara, eta
gogoratu jatekoa zeuek eraman beharko duzuela, beti be-
zala, eta baita eguzkitarako krema eta hondartzarako be-
har duzuen guztia ere. Ez ahaztu irteeran parte hartzeko
ezinbestekoa izango dela guraso edo tutoreen baimena,
eta izena eman dezakezuela uztailaren 13a arte Gaztele-
kuko Gazte Informazio Puntuan.

UZTAILAK 19, OSTEGUNA, EGUN OSORAKO

IZEN-EMATE EPEA: UZTAILAREN 13A ARTE



Aspaldiko bi aktoreren istorioa da honakoa, egungo egoera dela eta kalera atera behar dutenak beren promozioaren bila, eta batez ere beraien lana zabalduko duen ordezkari baten bila.

TRAPU ZAHARRA: "Ametsetan bizi"

Horretarako errepertorio zabal bat erakutsiko digute: urtebetetze ospakizunetatik, ezkontzearen daudenen festetaraino, baita karaoke eta abarrekoak ere.

Beraien arteko erlazio zailak: batez ere bakoitza mundu desberdin batetik datorrelako: bata telebistako kulebroietan parte hartzetik eta bestea antzerki radikale-
netik, erakusten dituzten ikuskizunak konplikatuko ditu beren bizibideaz ezusteko imajin bat agertuz.



Uztailak 27, ostirala, 19:00etan
Herriko plazan



LA JODEDERA

Kubako eta Euskal Herriko musika tradizioek bat egiten dute La Jodedera taldean. Kubako Oscar eta Mandik, eta Jomes eta Jon euskaldunek bi herrialdetako musikak batzea erabaki zuten. Horrela sortu zen La Jodedera taldea 2010eko maiatzean.

Laukote euskal-kubatarrak Kubako doinuak eskaintzen ditu euskaraz edota euskal abestiak Karibeko erritmoan. Nahasketa ausart eta lotsagabe horrek fruitu bereziak eman ditu: 'Yolanda', 'Ron-ron', 'Kanta gurekin kanta' eta 'Navarra tiene cadenas' ezagunen bertsio berriak... Musika freskoa eta alaia, gitarra, armonika eta bongoez lagunduta.



**Uztailak 28, zapatua,
arratsaldez herriko kaleetan**



SURF FESTA

2012



**Kirola
Sardinada
Musika
eta sorpresa ugari ...**

**Abuztuak 25, egun osoan zehar
Herriko gune ezberdinetan**



JOSU ZUBIA



+ artista
gonbidatua

Josu Zubia gazte oñatiarra asko ari gara entzuten azkenaldi honetan. Izan ere, Gipuzkoako kantu txapelketan finalista izan genuen mutil hau, showman peto-pettoa bilakatu da, eta taula asko zapaldu ditu azkeneko urte honetan bere gitarrak, ahotsak eta magiak lagunduta. Ez, ez du magia egiten gitarrarekin, baina bere ikuskizunean bi modalitateak uztartzen ditu: musika eta magia. Bi munduetan bere kabuz eman ditu lehen urratsak Josuk, eta abuztuko azken egunean ikasi duen guztia erakusteko prest igoko da taula gainera.

Berarekin batera konfirmatzeke dagoen beste artista edo talde bat ere izango da.

**Abuztuak 31, ostirala, 22:30etan
Atzeko Kaleko eskenatokian**



CHONGQING
Acrobatic Troupe

Txinako
Akrobazia talde
ikusgarria



**Irailak 01, zapatua,
19:00etan Herriko Plazan**